

HUTSEN ZUZENKETA ESKOLAN

Bilbo, 1994.02.26

Ibon Olaziregi Salaberria

Nork ez du ikusi eskolako idazlan bat edo ebaluazioko azterketa bat goitik behera tinta gorritz betea, zuzenketaz josia? Irakasleak azterketak bueltatzen zizkigunean hori izaten zen deigarriena. Nota ikusi baino lehen antzeman zitekeen paper haren “gorritasun-maila” irakaslearen eskuetan korrelazio estua zuen gainera gorriaren hedadurak ariketaren puntuazioarekin. Zenbat eta gorri gehiago hainbat eta nota eskasagoa, jakina.

Gaztelania-klaseetan bazegoen zer zuzendua: ortografia, azentuak, esamoldeak, lokailuak... Inork ez zituen eztabaidatzen Real Academiaren liburu lodietako arauak.

Geroxeago, euskarazko irakaskuntzak indar hartu zuenean, arazo larriagoak zituen irakasleak: erdaldunei euskara irakatsi, euskaldunei euskaraz mintzarazi, testu egokiak bilatu....Euskararen idaztarauak aski lau-so zeuden irakaslearen beraren buruan: garbi zegoen erregela bakoitzeko, hamabost galdera erantzunik gabekoak sortzen ziren. Ikasleek ere ez zuten (eta ez dute agian) euskara idatzia horrenbeste baloratzen. “Euskara badakigu eta zertan eman behar dizkigute ba euskara-klaseak?” entzun zitekeen. Guraso batzuen ahotik ere “Gure alabak euskara etxean ongi ikasi du eta nola liteke eskolan ez aprobatea?” Euskararen beraren balorazio eta prestijioaren ahuldadea erakusten dute jokamoldeok.

Hori guztia gutxi balitz batuaren eta euskalkiaren arteko borroka antzeko bat zegoen leku batean baino gehiagotan. Bakoitzaren erabile-remua mugatua ez izateak tentsio ugari sortarazi izan ditu.

Non zegoen, beraz, euskara zuzenaren eredia? Idazle zaharretan bilatuz gero, eredu desberdinak aurki zitezkeen. Aiton-amonen hizkera jatorrari begiraturaz gero, mila molderekin topatzen ginen. Sasoi onean etorri ziren euskara batuaren lehen proposamenak! Euskara landu gabe genuen askorentzat helduleku bikaina eskaini zuen, eta ez genuen dudarik egin artifizioz samar egiten zitzaizkigun arau haiek gure euskara

trakets eta jantzi gabeari aplikatzen. Baina, hotz-hotzean begiratura, horiek ere ortografiatzko eta morfologiatzko arau-sorta txiki bat besterik ez ziren: hainbat eta hainbat alorretan arau jakinik ez zen ematen.

Zorionez euskara idatziaren eredu batua finkatzen joan da. Badirudi, gainera, euskalkiei ere beren lekua aitortzea ez dela gaurko egunean garai bateko traizio makurra. Eta euskalki horiek euskararen ortografia batuaz idatzi behar lirakekeela pentsatzen hasiak gara aspaldian. Euskararen gizarte-indar ahulak dakarzkigun oztopoek hortxe badiraute ere, erabileremua zabaldu izanak gramatika-arazoetara zuzendu dizkigu begiak. Honenbeste testuliburu, honenbeste irakasle, errotuluak, idatzi ofizialak, aldizkariak, telebista, egunkaria...Jadanik ez da aski euskaraz nola edo hala egitea. Euskara txukuna, ona eskatzen hasiak gara, eta gainera ezarritako arauetara zuzena.

Ez da ba harrigarria euskaraz idazten dugunok eredu bateratuago eta aldi berean aberatsago baten premia igertzea. Eskolan lehen aipatu ditudan problemak (prestijio faltarenak, ahuldade sozialarenak) ez dira, bistan denez, gaingitu. Baina premia eta kezka akademikoen oihartzuna iristen da hara ere. Euskara-irakasleak gero eta arau gehiago hartu behar ditu gogoan eta, ondorioz, gero eta huts gehiago zuzendu behar dizkie ikasleei. Ez da aski ergatiboa noiz falta edo sobra den esatea. Ez da nahikoa ditzosozko “h”ak non doazen jakitearekin. Orain arazi guztiek lotuta joan behar dute, orobat bait guztiek, hilabeteek letra xehez, zenbakiak orain artean ez bezala....

Zenbaitentzat kontu hauek txikikeria higuingarriak badira ere, nire iritziz aurrerapausoa dira, hizkuntza normalizatuetatik zerbait hurbilago baikaude. “Txikikeria” horiek erabakita edukitzeak denbora gehiago utzi behar digu mezua, joskera eta gauzak esateko modua lantzeko, hortxe baitago euskaraz idatzi behar izaten duen jendearen hutsunerik handiena. Edozein modutan, eskoletan lan egiten duten profesionalengana nekez iristen dira “berri” akademiko hauek, eta garai bateko lausotasuna edo uste okerrak oraindik dantzan dabilta irakasleen artean. Eztabaida txoroak ere maiztxo izaten direla esango nuke: batzuetan aspaldi erabakita dagoen forma zuzena zein den ez da jakiten, besteetan berez onargarri diren hitzak edo moldeak gaitzesten dira aurreiritzi sinpleenaz. Erreferentziatzko liburu gaurkotuak behar direla esatea ez da aurkikuntza ikaragarria. Ikusi besterik ez dago zernolako harrera polita izan duten azken aldian argia ikusi duten estilo-liburu eta antzekoek. Hezkuntza Sailko Euskara Zerbitzuak ere aspaldi argitaratu zuen (1982an lehen aldiz) Euskaltzaindiaren arauak biltzen zituen liburuska eta bere eginkizuna hainbestean bete duela esango nuke. Nolanahi ere, honelako zabalkunde-lanak beharrezkoak dira oraindik, gaurkotuak, gero eta osatuagoak, eta ahal balitz ofizialtasun-maila batekoak.

Eskolan, ordea, hizkuntz akatsak zuzentzea ez da beti gramatika edo hiztegi bat eskuan hartuta konpontzen den arazoa. Irakasleek eguneroko jardunean aurkitzen duten problema honek estrategia landu bat behar du irakaslanaren barnean. Baina, errealitateari begira, irakasleen praktika hobetu ote da gure irakasle izan zirenetatik gaurkoetara? Dударik gabe gauza askotan gaurko irakasbideak lehengoak baino hobek dira. Alor honetan, baina, gauzak nahasi samar ez ote dauden galdegiten diot neurre buruari. Atzerrian egin den zenbait ikerketatan (Kanadako murgiltze-ereduetan, hain zuzen ere) zera ikusi dute: irakasleak ez direla batere sistematikoak ikasleen hizkuntz erroreak zuzentzerakoan (Allen, Swain, Harley, Cummins, 1990). Ez dute orohar modu jakin eta alde zuzenetik prestatu erabiltzen ziregin horretarako. Askotan, gainera, haserretzen direnean hasten omen dira zuzenketak egiten, modu eta une desegokienan, beraz. Gure artean honelako ikerlanik ez bada ere, pentsa liteke egoera ez dela askoz hobea izango.

Hausnarketa eta planifikazio-lana alor honetan behar-beharrezkoa da. Errorea, hizkuntzazkoa izan edo bestelakoa, ikasprozesuaren ezinbesteko emaitza da, irakasle bezala bilatzen ez duguna, baina ezinbestekoa eta espero izatekoa. Hona hemen planteatu behar genituzkeen zenbait galdera:

- Zein dira hizkuntz akatsak eta zein ez? Batzuentzat hutsegitea dena, beste batzuentzat ez da.
- Zein huts dira larriak eta zein bigarren edo hirugarren mailakoak?
- Huts horietatik denak zuzendu behar ote dira? Zein bai, zein ez?
- Noiz zuzendu behar dira? Zein adinetan? Klasearen zein momentutan?
- Nork zuzendu behar ditu akatsok?
- Nola zuzendu behar dira zuzenketa eraginkorra izan dadin?

Gara ditzagun puntu hauek xumeki bada ere:

Zein dira hizkuntz akatsak?

Ez dut uste denok ados gaudenik euskara onargarria eta ez onargarria bereizteko orduan. Jende askori pasatu behar zaizkion azterketak edo hizkuntz probak zuzentzeko (EGA, hizkuntz eskakizunak, irakas-sistemaren ebaluazio orokorrak...), eta batipat mintzamena, edo idazmena bezalako produkzioak epaitzeko, aztertzaileek beren irizpideak bateratu behar izaten dituzte. Horrelako bateratze-saioetan garbi azaltzen dira de-

sadostasunak. Zalantzak ere ugari izaten dira. Akats bat geografikoki hedatua izateak barkagarriago bihurtzen du? Euskalkietako forma batzuk txartzat har daitezke?

Gertatzen diren akats horien bilketa sistematikoa oso tresna proposa izan liteke eremu honen ikuspegia ordenatzeko. Errore-analisia deitu izan den horretaz ari naiz (Gorbet, F.1979) Erroreak biltzeaz gain, beren izaera edo ezaugarrien arabera sailkatu ere egin behar dira. Hutsegite batzuk erdaratiko interferentziak izango dira, beste batzuk superjeneralizazioak, edo hiperkorrezioak, saihezpideak, itzulinguruzko azalpenak etab. Honelako azterlanak bereziki interesgarriak dira 2H ikasten ari diren ikasleekin, baina ez daude sobera 1Hn ere, batipat gurean bezala gizarte egoera ahulean dauden hizkuntzekin. Jasaten ari garen erosio-gu-neak identifikatzea ez zait alferrikoa iruditzen.

Zer zuzendu eta noiz?

Den-dena beti eta ikasle guztiei zuzentzea ezinezkoa dela ez du inork zalantzan jartzen. Garbi da, beraz, aukera batzuk egin behar izan-godirela eta lehentasunak ipini. Agian beti akats berberak aipatzen dizkiegu ikasleei, beste batzuk ahantzita uzten ditugularik. Zer zuzendu eta noiz erabakitzeke pedagogi irizpideak erabiliko ditugu.

Batzuetan erroreak ikaste-prozesuaren fase bat adierazten du, agian ikasleak berez gaudituko duena. Beste batzuetan hiztunak errore fosil-duak edo ihartuak ditu, erabat barneratuak. Kasu bakoitzean irakasleak estratejia desberdina behar du. Hizkuntza-klaseak irakasmilaren eta programazio baten arabera taxutzen dira, aldika gai desberdinak ukituz: orain gehiago zentratuko dira ortografian, orain aditzean, gero lexikoan, beste momentu batean esamoldeetan...Agian zuzenketen programazio xehe bat gehiegizkoa izan liteke, baina oso lagungarria izan liteke guxtienezko ordenamendu bat.

Hizkuntz akatsak inoiz ez zuzentzeari jokabide pedagogiko txarra deritzot, baina, hizkuntz akatsa entzun orduko zuzendu nahi izatea ere ez da beti jokamolderik egokiena, komunikazioa oztopatzen duelako edo beste ekintza bat eteten duelako. Zuzenketak gerorako uztea komeni da orduan, baina ez geroko geroan: une (edo klase-emankizun) jakin batzuk gorde beharko ditugu horretarako.

Nork zuzendu?

Zuzenketak noren esku joango diren galdetzea ez da funts gabeko galdera. Euskara-irakaslea dugu gogoan dudarik gabe, baina zer esan

beste irakasleez? Ez ote dute eskolako tresna nagusia, hizkuntza alegia, zaintzeko ardurarik? Hizkuntz egokitasunaren zer-nolako balorazioa transmititzen diete ikasleei?

Gurasoek, beren neurrian, ez ote lukete horretaz ere kezkatu behar?

Eta ikasgela barnera itzuliaz, ez dut uste zuzentzaile bakarra irakasleak izan behar duenik. Bertako ikasle guztiek dute, edo behar lukete, aukera hori. Elkarren idazlanak irakurri eta oharrak egitea, esate baterako, bide aproposa izan liteke. Edo dakienak ez dakienari erakustea. Zailantzen aurrean erreferentzi liburuak erabil daitezke (behar dira, hortaz, gramatika, hiztegi, entziklopedia, ordenagailuko ortografi zuzentzaileak etab.) eta irakaslea laguntzaile izan daiteke jardupide horretan.

Nola zuzendu eta zertarako?

Beti modu berean zuzendu ordez, bide desberdin eta motibagarriak aurkitu beharko ditugu, ikasleek zuzenketa ulertzeaz gain, onar eta go-goan har dezaten. Zuzenketa ulertzeko modua aldatu behar dugulakoan nago. Zuzenketa ez du zertan lotsagarria izan. Gorriz betetako idazlan horiek irakaslearentzat lan ikaragarria izateaz aparte, ba ote dute eraginik ikasleengan? Eragin hori oso txikia dela diote. Helburu garbi bat ipini behar diogu zuzentze-lanari. Helburu hori gehientsuenetan testu (edo berbaldi) jakin baten kalitatea hobetzea izango da. Testuak ere helburu zehatz bat baldin badu, hainbat hobeto. Esate baterako, egunkari-rako gutun bat edo eskolako aldizkarirako artikulua bat edo lehiaketa baterako narrazio bat behin eta berriro moldatu eta orraztu liteke azken idazkuntza lortu arte. Zeregin horretan ordenagailuak oso aukera ederra eskaintzen digu testu berbera nahi adina aldiz berridazteko. Azken finean, benetako bizitzan, hizkuntzarekin lan egiten duen edonork testuak zuzendu eta hobetzea behar-beharrezko langintza du, eta ez naiz ari idazleez soilik. Hor daude kazetari, administrazio-langile eta abar luze bat ere.

Zuzenketa, hortaz, prozesu osoago baten zati litzateke. Testu eta berbaldien azterketa, lanketa edota kritika dira helburu eta horiek bultzatu behar lirateke. Norbere testuez aparte, besteren testuak ere jaso eta komenta litezke. Ez dute, gainera, literaturazko idazki jasoak zertan izan, idatzirik dagoen edozer baizik, are gehiago entzun litekeen edozer. Ahal delarik ikasleentzat motibagarri gerta litezkeen testuak ekarri beharko dira. Materiala ugaria da: bertsolaritza, esate baterako, erakargarri bihurtzen ari da gazteentzat ere, pertsona ezagunen hizkera, publizitateko hizkuntza eta bere tranpak, grafittiak, argotak, telebistako hizkera...

Orohar hizkuntzari berari erreparatu eta gure gustura moldatzen ikastea da kontua. Hizkuntza bera era kontzientean erabili eta maneiatur maitatzera irits daitekeela uste dut. Maitatu ez bakarrik gure nortasunaren seinale delako, baizik tresna baliagarria ere badelako.

Bibliografia

- Allen P., Swain M., Harley B., Cummins, J. "Aspects of classroom treatment: toward a more comprehensive view of second language education" in Harley, B., Allen, P., Cummins, J., Swain, M. *The development of second language proficiency*. Cambridge University Press, 1990.
- Gorbet, F. "Berezkoa du gizonak hutsegitea: Errakuntz analisia eta haurraren hizkuntz eskuratzea" (1979) in *Hizkuntzen irakaskuntza: zenbait artikulua*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1985
- Norrish, J. *Hizkuntz ikasleen erroreak* HABE-Itzulpen Saila 24, Donostia, 1989
- Esnal, P: "Erroreak helduen euskalduntzearen azken urratsetan" in ZU-TABE-17. Donostia, 1988.